

ANDOAIN / Kilkerren Sokaren bigarren fasea abian jarriko du bihar Ur Apalategik

Bihar, arratsaldeko 19:00etan, hasiko du bere ibilbidea Kilkerren sokaren bigarren faseak. Ur Apalategik 'Fikzioaren izterrak' narrazio bilduma aurkeztuko du udal liburutegian eta zeregin horretan Iban Zaldia izango du bidelagun.

111 Akademiak euskal literatura eta irakurzaletasuna sustatu eta bultzatzeko asmoz prestaturiko egitarauaren baitan garatu da Kilkerren soka eta urteko sorkuntza ezagutzera eman eta idazleei sorkun-tza hori irakurleekin partekatzeko aukera eskaintzea du helburu. Egitasmoaren bigarren fase honetan ere beste sei liburu aurkezpen antolatu dira, Euskal Herriko sei herri ezberdinetan burutuko direnak.

Saio horietan liburua aurkeztuko duen idazleak bidaide bat izango du alboan; honek liburua aurkeztuko du, irakurle gisa liburuaren balorazio bat eginez, eta zubi lana burutuko du idazlearen eta bertaratzen diren irakurleen artean.

Hurrengo saioa martxoaren 1ean izango da Abanto-Zierbenan; bertan Arantxa Urretabizkaiak '3 Mariak' aurkeztuko du Goizalde Landabaso alboan duela. Martxoaren 14an, Iruñean, Patxi Zubizarretaren 'Joan' aurkeztuko du Angel Errok, Civican-en; martxoaren 15ean, Azkoitian, Xabier Mendiguren Elizegik 'Ordu bietan Frontoian', Jokin Ansorenak idatzitako liburua presentatuko du, Elkarguneko erakustokian; martxoaren 22an, Zarautzen, Azken Portuko kristau biltoki zaharrean, Jon Benitoren 'Bulkada' aurkeztuko du Gari Berasaluzek. Azkeneko aurkezpena Urruñan egingo da.